

Sukaldean Sortzaile



Sukaldean Sortzaile Kanpaina

Basque Culinary Centerren eskutik, Sukaldean Sortzaile – Gazteak sutegi artean ekimenaren 7. edizioa dator. Gazteentzako lehiaketa bat da, beren helduengan oinarrituta, osagai berritzaile batekin errezetak sortzeko, ingurunearekiko eta sasoiko produktuekiko errespetua galdu gabe.


Belaunaldien arteko harremana, sormena eta berrikuntza, kultura gastronomikoaren sustapena eta teknologia berrien aplikazioa nabarmentzen ditugu.



Familien parte-hartzearekin eta honako adin-tarte hauetara zuzenduta:

- 12-14 urte bitartekoak edo 2014an 2013an, 2012an eta 2011n jaiotako gazteak, Lehen Hezkuntzako 6. mailatik DBHko 3. mailara bitarteko ikasleak barne. Kategoría hau ikasle errepikatzaileei, Hezkuntza Bereziko gela egonkorretako ikasleei eta adinaren irizpidea betetzen duten Lanbide Heziketako graduatuko ikasleei ere irekita dago.
- 15-17 urte bitartekoak edo 2010ean, 2009an eta 2008an jaiotako gazteak, hau da, DBHko 4. mailan, Batxilergoko 1. edo 2. mailan dauden ikasleak eta maila horietan egon daitezkeen ikasle errepikatzaileak, Hezkuntza Bereziko gela egonkorretako ikasleak eta adin-tarte horretako irizpideak betetzen dituzten Lanbide Heziketako ikasleak.





Gakoak

sukaldeansortzaile.com/Euskaraz

Gakoak

- + Iniziatiba
- + Gastronomia
- + Iragana/Oraina/
Etorkizuna
- + Belaunaldi artekoa

- + Harremanak
- + Sormena
- + Berrikuntza
- + Talde lana

- + Kooperazioa
- + Konpromisoa
- + Teknologia berriak
- + Artea

- + Errezetak
- + Konpetentzia
positiboa
- + Partekatzea



Parte hartzeko gakoak

Helburua, 12-14 eta 15-17 urte bitarteko gazteek plater berriak sortzea da. Beren helduen errezetetan inspiratuz beraien errezeta propioak burutzea.


Osatu 2-3 partaideko talde bat, sortu errezeta berri bat, grabatu bideoan eta parte hartu. Basque Culinary Centerreko Gastronomia Tailerretan parte hartzea izango da saria.

Elikadura orekatuaren eta elikadura-jasangarritasunaren kontzeptuak landu.

“Grabatu bideo bat euskaraz edo gaztelaniaz, eta azaldu errezetaren jatorria, zergatik aukeratu duzuen, zer urrats eman behar dituzuen errezeta egiteko, zer produktu eta tresna erabili dituzuen eta platera bukatuta. Bideoak 2 eta 3 minutu arteko iraupena izango du. Bideoan ez ahaztu errezeta sartzea”.

Bideoa ebaluatzeko, beharrezkoa da frogatzea errezetak zuek egiten dituzuela, baina ez da behar-beharrezkoa zuen aurpegia erakustea hala nahi ez baduzue (adibidez, eskuak eta unerren batean atzetik erakutsi dezakezue, edo aurpegi pixelatuak).





Nola parte hartu

INSKRIPZIOAK
sukaldeansortzaile.com/eu/

Oinarriak, Balorazioa tekniko eta faseak

Euskal autonomi erkidegoko eta Nafarroako partaideak

- Adin tarte: 12 -14 urte eta 15-17 urte
- ❖ Salbuespen moduan beste adin batzuetakoak, adin tarte honetako kurtsoan ikasten baldin badute..

Taldeko partaide guztiek adin tarteari dagozkion baldintzak bete behar dituzte.
Taldeen 3 kide izan behar dituzte

Aukeratzen duten errezetak beren helduen errezeta bat izan beharko du oinarri. Errezeta hori bereganatu egin beharko dute eta plater berri bat prestatu, egiten dituzten aldaketak justifikatuz.

Errezeta bideo labur batean grabatu beharko dute (gutxienez 2 minutu eta gehienez 3 minutu).
Bideoak euskaraz edo gaztelaniaz grabatuta egon beharko du, eta Youtube-n sortutako kanalean jarri beharko da.

- Errezetaren jatorria, zergatik aukeratu den, errezeta egiteko eman beharreko urratsak eta behar diren tresnak azalduko dira. Garrantzitsua da amaitutako platera aurkeztea. Bideoarekin batera errezeta ere bidali beharko dute.

Balorazio tekniko :

- Errezetaren jatorria eta aurkezpena .
- Errezeta originalaren eta berriaren arteko lotura.
- Errezetaren berrikuntza-maila.
- Errezetaren kalitatea eta oreka.
- Erabilitako teknikak..
- Tokiko eta sasoiko produktuak erabiltzea.

- I. fasea. Publikoaren balorazioa – ikastetxe bakoitzeko bideorik onena aukeratzea.
- II. fasea. Herritarren parte-hartzea – eskualdeko bideorik onena aukeratzea.
- III. fasea. Adituen batzordea – finalistak probintzien arabera hautatzea
- IV. fasea – Final handia Basque Culinary Centerren

Balorazio tekniko
–Errezeta idazketaren kalitatea.

- Plateraren aurkezpena
- Talde-lanaren maila.
- Bideoa Youtube -ra igotzeko epea
- Bideoaren kalitatea

Bideoa ebaluatzeko, beharrezkoa da frogatzea errezetak zuek egiten dituzuela, baina ez da behar-beharrezkoa zuen aurpegia erakustea hala nahi ez baduzue (adibidez, eskuak eta uneraren batean atzetik erakutsi dezakezue, edo aurpegi pixelatuak).

1. Taldea sortu

Taldeek 2-3 partaide izan beharko dituzte.
Bi adin-talde daude:
12-14 urte eta 15-17 urte.

12-14 urte bitartekoak edo 2014an, 2013an, 2012an eta 2011n jaiotako gazteak, Lehen Hezkuntzako 6. mailatik DBHko 3. mailara bitarteko ikasleak barne. Kategoria hau ikasle errepikatzaleei, Hezkuntza Bereziko gela egonkorretako ikasleei eta adinaren irizpidea betetzen duten Lanbide Heziketako graduetakoko ikasleei ere irekita dago.

15-17 urte bitartekoak edo 2010ean, 2009an eta 2008an jaiotako gazteak, hau da, DBHko 4. mailan, Batxilergoko 1. edo 2. mailan dauden ikasleak eta maila horietan egon daitezkeen ikasle errepikatzaleak, Hezkuntza Bereziko gela egonkorretako ikasleak eta adin-tarte horretako irizpideak betetzen dituzten Lanbide Heziketako ikasleak.





2. Errezeta berri datzi

Zuen helduen errezeta batean oinarritutako errezeta berri bat idatzi.
Egingo dituzuen aldaketak adierazi beharko dituzue.

Faseen atalean adierazi ditugun alderdi garrantzitsuei dagokienez:

Oso garrantzitsua

- Errezeta idazketaren kalitatea.
- Plateraren aurkezpena
- Talde-lanaren maila..
- Bideoa Youtubera igotzeko epea
- Bideoaren kalitatea



3- Bideoa grabatu

Grabatu bideo bat euskaraz edo gaztelaniaz, eta azaldu errezetaren jatorria, zergatik aukeratu duzuen, zer urrats eman behar dituzuen errezeta egiteko, zer produktu eta tresna erabili dituzuen eta platera bukatuta. Bideoak 2 eta 3 minutu arteko iraupena izango du. Bideoan ez ahaztu errezeta sartzea



4- Igo bideoa

Sukaldeansortzaile.com webgunean, bideoa igo atalean, behealdean, bideoa igo dezakezue.

Bideoa Youtubeko kanalera igo beharko da. Bideoa igo eta errezetak bidaltzeko epea azaroaren 9an amaituko da.

Urriaren 9tik azaroaren 9ra arte egongo da zabalik.



Lehiaketaren faseen deskribapena

I. Fasea

- Publikoaren balorazioa - Ikastetxe bakoitzeko bideorik onena hautatzea.
- Lehen fase honetan, ikastetxe bakoitzean bistaratze-puntu gehien dituzten bideoak eta "gustuko dituzunak" bigarren faserako aukeratuko dira.
- Youtube-n 'Gustuko dut' gehien jasotzen duen bideoa: bakoitzak daukan "Gustuko dut"-zenbakia 1,5 punturekin biderkatuko da ('Gustuko dut' 1 = 1,5 puntu).
- Gainera, berdinketarik izanez gero, bideoa igotzeko epea hartuko da kontuan.

Azaroaren 10etik 16ra





II. Fasea

Herritarren parte-hartzea – eskualdeko bideorik onena aukeratzea- Bigarren fasean, ikastetxeek, Ausolaneko taldearekin batera, eskualdeko bideo gogokoenak hautatuko dituzte*. Bideo horiek ezin izango dira beren ikastetxearenak izan, eta hautaketa lehiaketaren balorazio-irizpideetan soilik oinarrituko da.

Boto gehien jaso dituen bideoa eskualdeko hautatuena izango da..

Prozesu guztia BCC Culinary Clubeko taldeak gainbegiratu eta bermatuko du.

Bigarren faseko salbuespenak: bideo bakarra duten eskualdeak automatikoki pasatuko dira hurrengo fasera. Bi bideo badaude, Basque Culinary Centerrek egingo du aukeraketa.

Azaroaren 17tik 23ra

III eta IV Faseak

III. Fasea: Gure begiraleak profesionalizatzeko eta ahalduntzeko lan egiten dugu, etengabeko prestakuntza eta beharrezko tresnak eskainiz, haurren eta gazteen hezkuntzan eta zaintzan erreferente bihur daitezen, betiere ikastetxe bakoitzaren balioak eta filosofia errespetatuz.

IV. fasea: Aritu-taldea

Azaroaren 24tik 27ra

Final handia Basque Culinary Centerren.

Abenduaren 12an



Beste datu garrantzitsu batzuk

Bideoen sailkapena eta komunikazioa:

Hurrengo fasera pasatzeko hautatutako taldeak haiek bideoa igotzean emandako posta elektronikoaren bidez komunikatuko dira.

Antolatzaileek adin-talde bereko beste bideo bat gehitzeko eskubidea izango dute, baldin eta bideo hori hutsik geratzen bada.





Komunikazioak Posta E. eta Web bidez

Hurrengo fasera pasatzeko hautatutako taldeak haiek bideoa igotzean emandako posta elektronikoaren bidez komunikatuko dira.

Antolatzaileek adin-talde bereko beste bideo bat gehitzeko eskubidea izango dute, baldin eta bideo hori hutsik geratzen bada.

Sukaldean Sortzaile	2025
Faseak	Data
BIDEOAREN IGOERA	Urriaren 9 Azaroaren 9
1. FASEA	Azaroaren 10etik 16ra
2. FASEA	Azaroaren 17tik 23ra
3. FASEA	Azaroaren 24tik 27ra
FINALA	Abenduaren 12an

Final handia eta sariak

Final handia abenduaren 12an izango da, Basque Culinary Centerren Donostiako instalazioetako adituen batzorde baten aurrean.


Irabazleek honako hauetaz gozatu ahal izango dute:

Ikasgela osoarentzat sukaldaritza tailerra.

Adin-talde bakoitzeko bi sari egongo dira (12-14 urte eta 15-17 urte).

- **Saria sukaldaritza tailerreko klaseentzat da**
- **Irabazleek ikastetxearekin kontziliatu beharko dute, ikaskideekin batera egon eta sariaz gozatu ahal izateko.**
- **Erakundea ez da zentroko dieten eta joan-etorrien erantzule.**





Hezkuntza
Proiektua

Ausolan.



Eskerrik
asko!